

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

ARGAZKIAK ETA TESTUA:
GORKA AZKARATE


Gipuzkoa-Bizkaia muga (III)

Udalatx itzulia

Besaideko Mugarria

Amaitzera doa Gipuzkoa-Bizkaia muğan barrena osatzen aritu garen zeharkaldia; Debatik irten eta Eibarren amaitu zen lehenengo etapa, ondoren Elgetako mendi esanguratsuenak bisitatuz ibilbide zirkular paregabea marrazteko. Elgeta eta Intxorta gailur magikotik hurbil dagoen Kanpazarreko lepoan hasi eta bukatuko da hirugarren eta azken saioa. Merezi moduko amaiera emango zaio, gainera, zeharkaldiari; zein eta Udalatx (Udalaitz) gailur mallakartsua, Besaideko hiru aurpegidun mugarritik igoaz. Izan ere Udalatx bera da, askoren ustez, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia banatzeko naturak jarritako mugarria. Igoera handia hastera doa...

Erdikoatxako tontorretik Udalaitzko gailur nagusia; koba ere ageri da.



Ez dugu, oraingoan, kilometro asko ibili beharrik izango; dozena bat pasatxo baino ez. Lehenengo etapan hogeita bost eta bigarrenean hamazazpitik gora ibili ditugula kontuan hartuz. Hala ere, zeharkaldi guztian ez bezalako mendi malkartsu bat igotzea proposatzen da hirugarren eta azken txango honetan, Durangaldeko haitzetan lehena –edo azkena– den Udalatx, alegia. Arno, Kalamua, Azketa, Urko, Egoarbitza, Erdella eta Intxor-ta igo ditugu, besteak beste, aurreko jardunaldietan, baina kaxko horiek guztiek ezin diote, Udalatxeko edozein aurpegik egiten duen moduan, mendizaleari erronkarik jo. Jakina da Durangaldeko mendiak, oro har, malkartsuak direla oso, eta ez direla batere ailegaerrazak. Anboto, Alluitz, Untzillaitz edo Mugarrara joatea besterik ez dago hau egiaztatzeko. Udalatx ere, mendizerra guztia bezala, zeharo malkartsua da.

Kanpazarren hasiko dugu txangoa; jai egunetan, uda partean batez ere, jende ugari hurbildu ohi da Kanpazarreko lepoan dauden mahai eta erretegi-tara, hango pagadiaren abarokan bazkari legea egitera. Kanpoan bazkaldu nahi ez duenak, errepidearen albo batean dagoen ostatuko jakiak dastatzeko aukera ere badu. Gipuzkoa eta Bizkaia (Arrasate eta Elorrio) lotzen dituen GI-632 / BI-632 errepidea igarotzen da Kanpazar gainetik, eta bailara hauetan dagoen industri jarduera oparoak eraginda, auto eta kamioien igarobide garrantzitsu bilakatu da lepo hori azken hamarkadetan.

Gipuzkoako Birako margo ikur zuri gorriak topatu eta beraiek jarraituz osatuko dugu Besaiderrainokoa. Bide zabala eta igoera gogorrik gabea da haserakoa; lasaia, giharrak poliki-poliki berotzen joateko aproposa. Sarritan, hori bai, lokaztua egon ohi da. Elorrioko haraneko ikuspegi panoramiko paregabeaz gozatu ahal izango dugu hastapeneko zati honetan, baita isurialde honetara amiltzen diren Udalatxen pareta bertikalen ikuspegi-az ere.

Bidean aurrera goazela, bidegurutze batera helduko gara;

margo ikurrek ezkererantz jotzen dute, baina guk eskuineko bidexka hautatuko dugu, eta bizkor-bizkor Santa Luziako muinora iritsiko gara; bertan izen bereko ermita bisitatzeko


Santa Luzia ermita muino estrategiko batean dago, artadi eder batek ia guztiz irentsirik. Ermitak aterpea du hegalean

asmoz. Muino estrategiko batean kokatzen da Santa Luzia ermita, artadi eder batek ia guztiz irentsirik daukan muino batean, hain zuzen. Ermitak aterpe moduko bat du hegalean, egu-

raldi txarrak ustekabean harrapatuz gero bertan gordetzeko aukera eskainiz. Artadi itxiaren baimenarekin, zirrikitu bat aurkitu eta Udalatx harri puskarantz zuzenduko dugu begirada. Ondoren, atzera bidegurutzera itzuliko gara Besaideko bidearekin berriz bat egin eta aurrera jarraitzeko.

Besaideko lepoa

Besaideko lepoa hurbil dugu dagoneko; Udalatx inguratzen ari gara GR-121 bideari jarraiki eta gutxi falta da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako muga zehazten duen puntura heltzeko. Aurretik, Arrasateko Udala auzotik abiatu eta Udalatx zeharkatuz datorren bidearekin egingo dugu





Anboto, elurrez ziprztindua, Udalatxeko kobatik; eskuinean Udalatxeko tontorra eta antzinako ermitategia, gurutzea dagoen talaiatik.

topo, iturri baten alboan. Hemendik oso gertu dagoen Besaideko monumentua bisitatu ondoren, puntu honetara itzuliko gara berriro Udalatxeko maldei aurre egiteko. Udala auzora eraman gaitzakeen bidea egon badagoela jakitea garrantzitsua da, aurrez egindako planak aldatu

beharko balira-edo. Azken maldatxo bat igo eta mendian hildako mendizaleen oroimenez 1955. urtean eraikitako monolitara helduko gara: Besaideko muinoan gaude.

Besaideko gainetik, Durangaldeko mendien ikuspegi paregabeaz gozatu dugu: Orisol, Izpizte, Tellamen-

di, Anboto, Alluitz, Aitz-txiki, Untzillaitz, Mugarra... Bestaldean Arrasate menderatzen duen Murugain agerida eta, honen atzean, Aloña, Aizkorriko gailurreria, Orkatzategi, Amuategi, Mugarriluze, Elgeamendi, Kurutzeberri... Eta, nola ez, jarraian igoko dugun Udalatxeko hegi mal-

Besaideko monumentua



Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak Besaiden egiten dute bat; hiru aurpegidun mugarrida, beraz, Besaidekoa. 1955eko urriaren 30ean, zendutako mendizaleen oroimenezko monumentua bedeinkatu zuten Besaideko muinoan. Eta ordutik, urtero-urtero, oroimen edo gomuta eguna ospatzen da leku honetan, urtean zehar mendian hildako mendizaleak gogoratzeko.

Besaideko mugarrida, finean, Euskal Herri osoko mendizaleen elkarte puntua, ikurra, da. Monumentuaren sustatzaileak Angel Sopeña, Jose Luis Sopelana eta lagun talde txiki bat izan ziren; 1953. urtean, bost euskal mendizale zendu ziren Mont Blanc-en, eta kolpe gogor honek eragin zuen Besaiden monumentua eraikitzeko asmoa. Istripu horrek bereziki kolpatu eta hunkitu zuen euskal mendizale-tasuna. Bide batez, monumentua eraikitzeak, 1924. urtean Euskal Mendizale Federazioa sortu zenetik mendian desa-

gerturiko 46 mendizaleak nolabait omentzea ere ahalbidetuko zuen.

Monumentua kokatzeko euskal lurralde gehienetatik gertu xamar zegoen kokalekua nahi zuten sustatzaileek; aldi berean ederra eta iristerraza zena. Besaideko muinoak baldintza horiek guztiak betetzen zituen. 65.000 pezetako aurrekontua izan zuen monumentuak (53 urte lehenago Gorbeako gailurrean eraikitako estreinako gurutze erraldoi haren kopuru berbera, kasualitatez). Mañarian mendiari erauzitako harriez eraiki zen monumentua, eta 1955eko urriaren 30ean inauguratu.

1980an, hogeita bost urte bete zituen Besaideko monumentuak, eta zenbait ekitaldi bereziz ospatu zen urtemuga. Mila lagunetik gora hurbildu omen zen, ospakizunetako egun nagusian, Besaiden meza entzun eta erromeria giroaz gozatzeri. Angel Sopeña historikoak ez zuen, emaztearen debekuz (diotenez), bertaratzerik izan. Urte eta erdi geroago hil zen bere garaian punta puntan ibili zen mendizale eta eskalataile bizkaitarra. 1991. urtean, Besaideko bigarren monumentua inauguratu zen, muinoaren behealdean, lehendik zegoenarengandik metro gutxira. Gaur egun, 300 bat lagun biltzen dira urtero iraileko hirugarren igandean ospatu ohi den elkarretaratzera; izan ere, urtero baitaukagu, tamalez, nor gogoratu.



Durungaldeko mendiak eta Durangoko ibarra, Udalatxeko azkeneko maldetatik. Besaideko monumentua ere antzematen da behean.

kartsua. Besaideko monumentu biak bisitatu, atsedeen hartu eta eguneko igoera gogorrena hasten den lekura itzuliko gara.

Udalatx

Hortzak estutu eta pauso lasaiaz ekingo diogu Udalatx igotzeari; bostehun metroko igoera daukagu aurretik eta garrantzitsua da erritmo egokia aurkitzea haserako metroetan. Bidexka basoan barneratuko da, sigi-saga, eta harri pilatxo edo kairnak jarraituz ekingo dugu gora, urrats bakoitzean mendiari metroak kenduz. Basotik irten eta Pozutxuetako lepoakara helduko gara, harri pilatxo nabarmen batez seinatua. Pozutxuetako igarobidera ailegatzeko asmatzea bereziki garrantzitsua izango da isurialde honetatik jaitsi nahiko bagenu. Hemendik aurrera, Udalatxeko eremu basati eta malkartsuenen ekingo dugu aurrera.

Mendizale trebatuenak, Udalatxeko gailurreria osoa egiten saia daitezke, Gaintxorta eta Erdikoatxa puntak igoz, Udalatxeko gailur nagusira heldu aurretik. Hemen proposatzen den ibilbideak, zeharkaldia egiten du, gailurreriako eremu arriskutsuenak saihestu eta igoera seguruagoa osatzen du. Bidexkak gora ekingo du,

edozein kasutan, atsedeen gabe, eta kosta ekingo zaigu metroak irabaztea. Igo ahala, harriak ugaltu egingo dira bidean, eta kontu handiz eman beharko dugu pauso bakoitza. Udalatxeko koba begiz jota, bertara ekingo dugu zuzenean. Koba hau Udalatxeko gailur nagusiaren erraietan dago,

Udalatxeko koba gailur nagusiaren erraietan dago, bertatik gailurrera minutu gutxi beharko ditugu

eta minutu gutxitan igoko gara kobatik gailurrera. Koban geldialditxoak egiteak ordea, merezi du benetan; dena esan behar bada, babesa da zulo hau koba baino gehiago, ez baitu sakonera handirik. Edonola ere aterpe egokia da eguraldiak txarrerara egin ez gero. Azken ahalegintxoak eta Udalatxeko gailurrera helduko gara. Ikuspegia ikaragarria da norabide guztietan, eta erraz ezagutuko dugu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako mendi andana. Gailurrean dagoen orientazio mahaiari begira orduak pasa ahal dira, eguraldia lagun, norabide guztietara begira.

Kanpazarrera jaitsiera

Kanpazarreko lepora ematen duen isurialdean behera egin aurretik gailur nagusia baino beheraxeago dagoen gurutzera joko dugu. Gurutze hau Deba garaia menperatzen duen talaia paregabea da. Arrasate ageri da, nola ez, behean. Metro batzuk beherago, Udala auzora jaisten den bidea utzi eta ezkereruntz egiten duen bidexkari lotuko gatzazkio –margo ikur horiak–, Kanpazarrera jaitsi asmoz. Malda bortitzak beldur pixka bat sor dezake agian, horregatik patxada hartu eta kontu ibiltzea komeni da. Harri leuna eta lohia nahasten dira malda honetan askotan, eta arrisku handirik ez dagoen arren, laprast egin eta eroriko bat izateko aukerak izan badira. Galdu behintzat ez gara ekingo bidea garbia da eta. Poliki-poliki metroak galduko ditugu, Kanpazarreko mendetik gertu dagoen harrobia saihestuz, harik eta lepora heldu arte. Txangoaren azken metroak egiten ari garela ohartuko gara, zeharkaldi ederra amaitzera doan seinale. Oraindik, zorionez, asko dira ezagutzen ez ditugun gure mendiak; Kanpazarrera iritsi eta botak askatzeari ekin bezain laister, irudimena lagun, hurrengo zeharkaldia prestatzeari ekingo diogu. ■